

SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKO ZERBITZUA**HIZLARIA: USOA ICETA OLEAGA DK.****MODERATZAILEA: MAITE ISPIZUA OJANGUREN DK.****2019KO OTSAILAREN 22AN, 8:15EAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA)****KASU KLINIKOA****AURREKARI PERTSONALAK**

- 53 urteko emakumea
- Botikei alergia aurrekaririk ez
- Ohitura toxikorik ez
- Ez du ohiko tratamendurik

AURREKARI GINEKOLOGIKOAK

- Menarkia 14u
- Nuligesta
- Aho bideko antisorgailuak 3 urtetan zehar menopausia ondoren
- Azken hilekoa 2015eko Urrian

FAMILI AURREKARIAK

- Ahizpa koloneko minbiziarekin diagnostikatua 30 urterekin
- Ama gernu maskuriko minbiziarekin diagnostikatua 83 urterekin

EGUNGO GAIXOTASUNA

2015eko Azaroan Ginekologiako zerbitzura jo zuen hilabete bateko metrorragia perimenopausikoagatik kontsultatuz. Min pelbikorik ez.

MIAKETA FISIKOA

Kanpo genital eta bagina normalak.

Itxura normaleko zerbixa, epitelizazio egokiarekin.

Baginako taktoa: uteroko tumorazioa eta nodulo ukigarria eskuineko parametrioan.

Explorazio abdominal normala. Gongoil susmagarririk ez.

FROGA OSAGARRIAK

Biopsia endometrial (Cornier): Endometriko adenokartzinoma endometrioidea.

RMN: Umetokiko tumorazioa, honen barrunberuntz zabaltzen dena, miometrioa mehetuz eta sakoneran infiltratuz. Zerbixeruntz luzatzen da estroma fokalki infiltratuz. Parametrioetan seinale alterazioa, nabarmenagoa eskuinaldean. Gongoil susmagarriak bi aldeetako kate iliakoetan eta bi inplante tumoral: eskuin obulutegi eta sigma bitartean eta ezker ligamentu borobilaren parean.

TAC T-A-P: Tamainaz handituriko umetokia barnean masa bat bistaratuz.

- **Datu guzti hauek kontuan harturik, ze tratamendu eskainiko zenioke?**